

DROGETEN

LIJURRA

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 277. zenbakia. 2019ko apirila

Euskarak
batuta,
Korrika!



oirilare

GARESTIK GASTEI



Aurrematrikula maiatzaren 2tik 14ra



ATE IREKIAK
maiatzaren 2an
18:00etan



Jardifeta 3 Eibar . Tel.: 943208349 . Fax: 943206048 E-mail: 012055aa@hezkuntza.net

Fp
EUSKADI
LANBIDE HEZIKETA

IMH FABRIKAZIOAREN
ZENTRO AURRERATUA
CENTRO AVANZADO
DE FABRICACIÓN

HEZIKETA ZIKLOAK

Informazio saioa: maiatzak 18
11:00etan | IMH (Elgoibar)

Baieztatzeak: 943 74 82 65
amaia@imh.eus

Webgune berria!
www.imh.eus

IMH FABRIKAZIOAREN
ZENTRO AURRERATUA
CENTRO AVANZADO
DE FABRICACIÓN

UPV EHU

INGENIARITZA GRADU DUALA

Informazio saioa: maiatzak 18
11:00etan | IMH (Elgoibar)

Baieztatzeak: 943 74 82 64
ingeniaritza.ehu@imh.eus

Webgune berria!
www.imh.eus

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Amaia Arginzoniz,
Estibalitz González
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Valentin Mugarza.

LAGUNTZAILEAK:

Eneritz Arriaga,
Bizkaiko Elizaren Histori
Artxiboa, Myriam Garzia,
Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López,
Udal Liburutegia,
Valentin Mugarza,
Nahia Rojo,
Agustin Solozabal
eta Jesus Zamalloa.

ARGAZKIAK:

Iker Carral,
Andoni Cerdeiro,
Valentin Mugarza,
San Lorenzo Eskola,
Libe Solozabal eta
Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Piedi Eizagirre,
Ibon Txurruka
eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko kantuak

Herritarron ahotik

Ume kantua

Eurixa dator

Eurixa dator menditxik
Ondarruako aldetik,
amak opila labatik
aitxak arda zaharagixik,
txiki eta txik, txiki eta txik,
txiki eta txiki eta txiki eta txik.



(Entzuteko: www.alboka.es)

Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA4 Libe Solozabal (Mozambique)	BOTEPRONTOAN.....16 Rubén Losada
ELKARRIZKETA5-7 Andoni Cerdeiro eta Iker Carral	KIROLZALE.....17 Andoni Isusi txakur kroseko txapelduna
MALLABIAN ZER?8-9 Jasokunde parroikia	IRITZIA18 Desira falta
MOTZEAN10 Euskal Birusaren batzar orokorra	ZORION-AGURRAK19 Saldu, erosi edo agurtu
KORRIKA.....12-14 Mallabiko eta Ermuko argazkiak	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ESKOLEN TXOKOA15 San Lorenzo eskolako berriak	SAREAN GALDEZKA21 Bozkatzeko asmoa duzu?
	MAIATZEKO AGENDA .22

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Libe Solozabal

Otsailean irten zen Ermutik eta hiru hilabete emango ditu Mozambiken Libe Solozabalek, graduko praktikak egiten. Ez da etxetik irteten den lehen aldia. Iaz 6 hilabetez egon zen Bolivian ikasten.

- Erabaki erraza izan zen lehen Boliviara eta orain Mozambikera joatea?

Asko pentsatu barik egin nebazen biak. Bidaiatzea asko gustatzen jata, jende eta leku berriak ezagutzea. Eta horretarako aukera ezin hobeak dira.

- Nola imajinatzen zenuen Mozambique?

Ba hona nentorrela pentsatzen, oso leku sikua zala pentsatzen neban. Nire buruan paisaia marroia zan, eta guztiz kontrakoa da. Abioia lurreratzean hartu neban sorpresa, dana oso berdea da eta uste baino mendi gehiago ditu, oso polita da.

- Badago harritu zaituen zer edo zer?

Enuen herrialdea batere ezagutzen, orduan enuekan espektatibarik. Merkaturan espero nuena baino barazki eta fruta aukera gutxiago dago, hemengo dieta nahiko mugatua da. Bestalde, etorri ginenean orain baino tenperatura altuagoak zeuden, eta bero asko pasatu nuen. Horrek asko kantsatzen ninduen. Gerora, bat-batean zikloiak harrapatu gintuen,


eta kriston euriteak egon ziren. Harrezkero tenperaturak jaitsi egin dira, hala ere beti dago eguzkia.

- Nolako da bertako errealitatea?

Hemengo gizartearen euskarria emakumeak dira. Emakumeak *matsabetan* egiten dute lan, hau da, ortu handietan. Normalean hiritik urrun daude, eta aste batzuk pasatzen dituzte etxetik kanpo lanean. Lortzen duten generoa familia elikatzeke da, eta merkaturan saltzeko. Auzoko emakume askok *Mercado Curvan* egiten dute lan barazkiak saltzen. Orain, *milhoa* (artoa) eta *amendoim* (kakahuetea) landatzeko garaia da. Hala ere etxe guztietan dute ortu txiki bat.

- Zer eraiten dute bertan?

Etxe askotan papaia eta aguakatea ematen dituzten zuhaitzak dituzte. Guk egunero jaten dugu aguakatea, etxean mordoxka ditugu beti. Lan egiten dugun elkartera ume asko etortzen dira, eta aguakateak oparitzen dizkigute badakitelako pila bat gusztatzen zaizkigula.



- Ondo moldatzen zara bertako hizkuntzarekin?

Mozambique Portugaleko kolonia izan zanez, portugesa da hizkuntza ofiziala. Baina probintzia bakoitzean dialekto desberdin bat dute. Beraz, hemen bi hizkuntza erabiltzen dabez. Lehenengo erronka portugesa ikastea izan zan, orain dialektoarekin hasi gara. Emakumearen eguna zela-eta, pare bat abesti ikasi doguz dialektoz.

- Zerbait botatzen duzu faltan?

Lehendabiziko asteetan ez dut denborarik izan ezer faltan botatzeko. Baina hamen ez dakagu han ditugun erraztasun eta erosotasunik. Bueltatzean gustora joango naiz mendi buelta baten ostean familiarekin bazkaltzera, eta lagunekin zerbeza batzuk edatera.

- Nolako da zure egun arrunt bat?

Hilabete t'erdi daramagu hemen eta momentuz ez dugu egun aurruntik izan. Goizetan eskolan egiten dugu lan: jantokirako erosketak egiten, komunitatean bisitak egiten edo emakumeen programan. Gero, hemengo langileekin bazkaltzen dugu, eta arratsalde batzuetan ere lan egiten dugu. Ostean, umeekin jolasten gelditzen gara. Iluntzean merkatura joaten gara eta bizilagunekin hitz egiten dugu.

- Ermura bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Bai, asko gustatzen zait denboraldi batez kanpora irten eta gauza berriak ezagutzea, baina nire etxea Ermua da.

Amaia Arginzoniz



FUB

Mediku psikiatra
Psikoterapia psikoanalitikoak
Psikosomatika

Fernando Urizar Barandiaran

Ego gain ,18-1A. EIBAR. Tel: 615 71 54 04
Bailen kalea, 9-1 ezk. BILBO. Tel: 94 416 49 06
furizar1@yahoo.com




ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

<ul style="list-style-type: none"> - Toldoak - Ostalaritzarako muntaiak - Pertsianak - Instalakuntzak eta konponketak - Motorizazioa 	<ul style="list-style-type: none"> - Manparak - Segurtasun pertsianak - Pertsiana dekoratiboak - Estoreak - Eltxo-sareak
---	---

Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)


Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com



Andoni Cerdeiro eta Iker Carral. Ermuarrak dira biak, eta idazleak. Baina hor bukatzen dira antzekotasunak.

Andoni Cerdeiro arkitektoa da eta 32 urte ditu. Abenduan bere bigarren liburua kaleratu zuen, *Diario de un ninfómano*, 18 urtetik gorakoei zuzendutako lana. Iker Carralek, aldiz, 17 urte ditu, 2. Batxilergoko ikaslea da, eta zine eta argazkigintzarekin lotutako ikasketak burutu nahi ditu. Bere estreinako lana, *Irracionales*, iazko uztailean kaleratu zen: olerki, testu labur eta berak diseinatutako ilustrazioez jositako liburua.

Haien etorkizunez galdetuta, bat datoz berriro ere: biek daukate bidean hurrengo liburua.



Andoni Cerdeiro, idazlea:

“Sexu-pluralitatea pertsona guztien oinarrizko balorea izan beharko litzateke”

2013an arkitektura enpresa zabaldu zuen, baina idaztea du gustuko. Duela urte batzuk idatzi zuen *Las n+2 máximas del mundo empresarial: Marca personal: #Branch* (Ermuko liburu-dendetan eta Amazonen salgai). Saiakeratik narratibara jauzi egin zuen abenduan, eta datozen hilabeteotan kaleratuko du bere hirugarren liburua.

- Zer kontatzen du *Diario de un ninfómano*?

Erik unibertsitarioaren bizitza kontatzen du. Erik familia kontserbadoretik dator, hainbat aurreiritzi eta klixe izan ditzake edo ez, eta liburuan haiek garatuko ditu edo ez. Sexu-harremanen bitartez emozioz betetako bizitza-bilakaera izango du: maila ekonomiko altuko neskaekin, merkataritza-guneko saltzailearekin, ezezagunekin... Beti ere errespetuz eta askatasunez. Benetako maitasuna topatuko du?

- Nori zuzendutako liburua da?

18 urtetik gorakoentzat da, eduki sexual handikoa baita. Gainera esan behar dut liburuak



ruak gizarte-onura duela. Bere helburua da LGTBI kolektiboaren normalizazioa. Nire ustez sexu-pluralitateak eta sexu-dibertsitateak pertsona guztien oinarrizko baloreak izan behar dute. Kinsey txostenean oinarrituta dago nire liburua, eta honen arabera, pertsonen %75ak LGTBI kolektiboarekin nolabaiteko kontaktu fisikoa izan du.

- *Liburua autobiografikoa da?*

Ez. Bertan agertzen diren leku asko errealak dira, baina fikzioa da.

- *Zenbat denbora behar izan duzu idazteko?*

Zazpi hilabete inguru igaro ziren lehen lehen idatzi nituenetik kaleratu arte.

- *Zein argitaletxerekin egin duzu lan?*

Hasieran Grupo Planetara bidali nuen lana, eta oso kritika positiboa egin zidaten. Baina azkenean viveLibrorekin egin nuen, kosteek izugarriko alde zutelako. Hasieran egile-eskubideak erosi nahi izan nituen, baina ezinezkoa izan zitzaidan. Izan



ere, *crowdfunding* plataforma batean ibili nintzen, baina esperientzia benetan eskasa izan zen. *Bussiness agent* batek ere ez zuen nire edukien aldeko apustua egin.

- *Non erosi daiteke?*

Ermuko liburu-dendetan liburu fisikoa erosi daiteke, eta Amazonen formatu digitalean. Gainera, Udal Liburutegian ere maileguan hartu daiteke. Izan ere, pentsatu genuen liburuak izaera soziala izan behar zuela, baliabide ekonomikorik ez dutenek ere irakurri ahal izateko.

- *Nola ikusten duzu zure etorkizuna? Idazten jarraituko duzu?*

Betidanik daukat gustuko irakurtzea; idaztea, berriz, duela gutxiko afizioa da. Gustuko dut, baina hobbya

da, ezin da nire ogibidea izan. Espainiako literatura-urrezko Mendean, idazleek esaten zuten: idazten baduzu, bazkaltzeko beste irabaziko duzu, ez ordea afaltzeko beste. Uste dut horrekin erantzun dizudala.

- *Zeintzuk proiektu dituzu esku artean?*

Enpresa batean kontratatuta nago, eta irakaslea izateko ikasten ari naiz. Denbora librean idazten dut, eta nire hurrengo liburua prestatzen ari naiz. Feminismoari, prostituzioari eta tratu txarrei buruz hitz egingo du. Lehen aldiz, hirugarren pertsona idatziko dut eta horrek lanbete berezia eskatzen du, beraz, lasai hartzen ari naiz. Ez daukat momentuz datarik.

Dorleta Vidal



OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA

Marfil

Ile-apaindegi bat baino gehiago!!

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 · Goienkale 12

Caperos

Pinboak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitarkekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

Iker Carral, idazlea:

“Nik zerbait adierazi nahi dudan arren, liburuak interpretazio ugari ditu”

2018ko uztailaren hasieran atera zuen bere lehen liburua, *Irracionales*, 16 urte zituenean. Artaldeari jarraitzen dioten ardiei buruz hitz egiten du bertan eta, autobiografikoa ez den arren, bere bilakaera pertsonalaren gorabeherak jasotzen ditu.

- Zer topatuko du irakurleak zure liburuan?

Ez dakit, bakoitzak bere erara ulertuko du. Bakoitzaren errealitatearen arabera, modu ezberdinean ulertu daiteke. Abstraktua da: nik zerbait adierazi nahi dudan arren, interpretazio ugari ditu. Eta ez da autobiografikoa, baina ingurukoei gertatuko gauzetan oinarritzen da.

- Irracionales du izenburua. Nortzuk dira irrazional horiek?

Artaldean doazenak, ardiak balira bezala. Norbera izaten ausartzen ez dena da irrazionala, lider baten atzetik beti.

- Eta irrazionalak izaten ez jarraitzeko aholkuak ematen dituzu liburuan?

Baietz esan daiteke. Baina batez ere nire bilakaera azaltzen dut: anbiziorik gabeko pertsona izatetik, gizarte honetan bizi garen burbuilatik irteten nahi duen pertsona izateko eman ditudan pausuak.

- Zenbat denbora eraman dizu berau prestatzeko?

Hilabetean idatzi nuen, argitaletxera bidali, eta aste batzuen bueltan baiezkorekin erantzun zidaten. Lan ederra zela esan zidaten.

- Zein adin tarterri dago zuzenduta?

Edozeini. Baina baliteke oso nagusiek ez ulertzea.

- Zergatik aukeratu duzu olerkigintza?

Olerkiak irakurtzen ditut batez ere, eta testu laburrak. Edozein istoriori buruzko 500 orriko liburu batekin baino gehiago betetzen naute. Poesia irakurtzea dut gustuko, beraz, idaztea ere.

- Eta noiz sortu zitzaizun idazteko zaletasuna?

Txikia nintzenean hasi nintzen idazten, baina alde batera lagatzen joan nintzen. Iaz, filosofiako klaseetan testuak idatzi behar genituen. Berritro ekin ahal niola konturatu nintzen, idazten hasi, eta liburua

idazteko gogoia sartu zitzaidan. Zergatik ez?

- Zer motatako gauzak idazten zenituen klase horietan?

Filosofiako irakasleak galderak egiten zizkigun, geure buruei buruz pentsarazteko. Ez ziren geure buruari galde ohi dizkiogun gauzak, eta hausnartarazten ninduten.

- Liburuko olerki bakoitzak ilustrazio bat dakar. Zuk egin dituzu marrazki horiek?

Bai. Txikitatik pintura klaseetara joan naiz Lobianon, eta zergatik ez lagundu olerki bakoitza marrazki batekin, agian olerki hura hobeto ulertzen lagundu dezakeenarekin? Eskuz eginda daude, zuri-beltzean.

- Non erosi daiteke?

Herriko liburu-dendetan. 100 ale argitaratu nituen hasieran, eta editorialak gehiago eskatu zizkidan. Beste 100 kaleratu nituen, eta horietatik, 50 gutxienez saldu dira.

- Lehen aipatu duzun bezala, gaur egun badakizu zer nahi duzun. Prozesu neke-tua izan da?

Bai. Baina hori baino gehiago, esango nuke urteak aurrera joan ahala aldatzen




joaten zarena. Heldua egiten zara. Eta momentu batean ikusten duzu aurretik ikusten ez zenuena.

- Aurrera begira, zeintzuk proiektu dituzu?

Arlo profesionalean, zine eta argazkigintzan aritzea gustatuko litzaidake. Horrez gain, idazten jarraituko dut. Prest daukat jada nire bigarren liburua, *Astros* izena duena, eta ekainean kalera-tuko da. 6 hilabete inguru eman dut idazten, eta *Irracionales* bezala, olerki eta testu laburrez osatuta dago. Orri gehiago ditu, baina patroi bera du. Hau bai, autobiografikoa da, nire sentimenduak jaso baititut bertan.

Dorleta Vidal






SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragón (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

Mallabiko eraikin esanguratsuenak:

Jasokunde parrokia (II)

Beti hor, presente eta tente, herrigune, eliztarren bilgune, mallabitarren zelatari eta kanpai-hots hutsez, tan-tan!, orduen salatari. Hain gertu eta hain ezezagun. Sartu gaitzen ba mende atzeragoko edertasunean.

Eraikitze data

Uste da XI. mendean (hau da, orain 1.000 urtetik gora) fundatutako beste eliz baten lekuan jaso zela, baina ezin izan da frogatu.

Estiloa

Manierista, hau da, Errenazimendua-aren amaieratik Barrokoaren hasieraraino Europan gehien hedatuko zen estilo artistikoa. Bestalde, erretaulak rokoko ikutua du eta eliz-dorrea Herrerianoan kokatu daiteke.

Izena

Dokumentu batzuetan Mallabiko Santa Maria, beste askotan Jasokundeko Andra Mariaren Parrokia eta, idazteko moduari erreparatuta, gazteleraz topatutako kuriosoena "Parrochial de la Asunción de Nuestra Señora" izango da.

Ezaugarri arkitektonikoak

Egitura aldetik barrutik nabe bakarra du, albo baten sakristiak eta elizbarrenean, koroa. Kanpotik erabat inguratuta dago eraikina: alde batetik, arkupe bi, "goiko eta beheko elizpie" herritarren ahotan, frontoi eta jolasleku estimatuak izandakoak; eureta baten gainean Kontzejuzarra, beste sasoi batzuetan Udaletxe. Bestetik, kanposantu zaharra, elizari joten-joten hau ere eta laugarren alde batean, sakristiak, bata elizkizunetarako gauzen gordeleku eta doktrinak emateko bestea.

Kanpandorrea

Kubikoa du zurtoina eta piramidala gaineko txapela, forma berekoak izanik ertzetako lau pinakuluak. Hauek koroatzten, bola eta gurutze bana daude. Erlojua eta bi kanpai txiki ikusten dira kanpotik, baina harrizko eta egurrezko 109 eskailera igo ostean, beste bi kanpai erraldoirekin egingo dugu topo, brontzezkoak hauek ere. Txikiak (zerbait esatearren, bakoitzaren 130 kiloak kontutan izanik!) arduratzen dira laurdenak eta erdiak ematen; batek burdinaran landuta du "JHS MARIA JOSSEPH. 1673". Sistema elektriko bati esker, ordu osoaren kanpaikadak jotzearen ardura bi erraldoiena da. Hauetako batek, 1694an

urtutakoa, eta 1.040 kilo inguru pisatzen omen duena, bueltan-bueltan ere zer irakurri dakar: "ECCE CRUCEM DOMINI FUGITE PARTES ADVERSE VICIT ILO DE TRIBU IUDA RADIX DABID ALELUYA".

Erretaula

Aldare nagusia barroko estilokoa da eta lau zutabe doriarrek eusten eta edertzen dute. Erdian Arrosarioko Amaren taila bikaina du, kandelen ke, intsentsuaren lurrun eta urteen hezetasunaren ondorioz erabat belztuta ikusten dena. Alboetan S. Pedro eta S. Juanen tailak, goiko aldean Jesus gurutzean eta behekoan Jesusen Bihotzaren margolana. Aldarean bertan ere bataioetarako ponteko harria dago, marmol zuri-beltzean harlandutakoa.

Organoa

Donostiako A. Amezua eta Cia.ren taillarrean egindakoa da 1929 urtean. Haren aurretik erabiltzen zen *harmonium*ak ere aldare nagusian jarraitzen



Elizpea eta sarrerako atea.

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

OINAK

LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44

SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

du, 1868 urtean herriko hainbat andrazkok aurrez emandako errealei esker erosi ahal izan zena.

Berriztatze lanak

Eraikina XVI. mende amaierarako egoera larrian zegoen, baina diru-iturri ezagatik lanak ez ziren amaituko XVIII. mende erdiraino. 1701ean, esaterako, jasotako limosnak eliz-dorrean inbertitzen dira. 1720an, ostera, Erregearen agindu batek bultzatuko ditu konponketok, argudiatuz ikusten zela *“expuesta a arruinarse por falta de medios para perfeccionarse, sirbiendose en ella el culto Divino con indecencia”* eta horretarako *“os mando que de los Diezmos que se hallan en deposito pertenecientes a dicha AnteYglesia, hagas sacar la cantidad competente para costear la obra, así en los materiales como en la de los ornamentos del culto”*. Azken konponketak 2014ean egin dira.

Dokumentazioa

Derion, Bizkaiko Elizaren Histori Artxi-boan gordetzen dira bertako agiri guztiak. Ugariak dira herrian izandako lau kofradien kontu-liburuak eta inbentarioak, parrokiaren eta honen menpe dauden ermiten kontu-liburuak, Calahorrako goztaitegitik eginiko bisiten aktak, herrita-



Ordu laurdenak eta erdiak ematen dituzten bi kanpaik

rrek Elizaren alde eginiko testamendu aginduak... Guztietaz gain, 1900era arteko 6.048 bataio, 2.069 ezkontza eta 3.136 heriotza agiri ere gordetzen dira bertan: beraietatik 1580an jaiotako Francisco Berano goitia Berano goitia da errege-istratutako lehen umea, 1584an ezkontutako Francisco de Ypiñaresti eta Marina de Echavarri idatziz jasota dugun lehen bikotea eta, azkenik, 1593an Maria de Elexalderen heriotzarekin ematen zaio hasiera herrian mendeetan zehar zendutakoen zerrenda luzeari. Gaztelaniaz jasotzen dira ia eskuizkribu guztiak, latinez banaka batzuk eta euskaraz ere baten bat, esaterako, *“1870 urteko illen mandac”*, hildakoen agindu edo nahiak.

Abadeak

Saso baten elizgizonak ziren idazten zekiten bakarrak, eta *lengua bascongada* ezagutzen zutenez, herritarren mesederako sarritan itzultzaile lanak ere egin behar izaten zituzten. Calahorrako Goztaintzaren menpe zeuden Mallabiko parrokia eta ermitak eta 1675ean Gotzaia-aren agindu zorrotza iritsi zen bertara, esanez *“mando al dicho Cura beneficiado, capellanes y demas clérigos de Orden Sacro de la dha. AnteYglesia de Mallavia que no entren en las tabernas públicas a comer, beber ni jugar ni salgan a danzar en público por los gran inconvenientes que de ello se siguen, bajo pena de excomunion mayor que se procedera contra los reveldes”*.

Ermitak

Beranonausiko S. Migel, Osmako S. Migel txiki, Goittako S. Juan, Artetako



Erretaula, rokoko esfilokoa.

S. Juan, Apoitteko S. Martin, Bidarteko S. Pedro, Beranotxikiko S. Jurki, Beranonausiko S. Antonio, Ariñoko S. Trokaz, Abendibarko Sta. Katalina eta Aitxixoko Esperantzako Ama Birjina.

Bitxikeriak

1852an, herritar batek sortutako fundazioari esker, hainbat liburu banatu ziren eskolako neska eta mutilen artean, ume-rik langileenei, bikainenei eta behartsue-nei oparitzuz. Sariak: euskarara itzulitako otoitz-liburuak, kristau-doktrinakoak, hauek ere *bascuencean*, eta gaztelaniazko gramatikakoak. Fundazio berberaren izenean, 1858an parrokiako abadeak 13 bortzegi (bota sendoak) eta zapata parekin batera, eskolarako hainbat tresna en-kargatu zituen eskolaumeen artean banatzeko. Pozarren hartuko zituzten hartu!

Estibalitz González

Eskuz egindako
terapietan adituak



Probaleku 5 · 48260 · Ermua
617 680 156

www.fisioterapiamanualartros.com



Udal Euskaltegia

Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925

ermukoudaleuskaltegia@gmail.com



ZUZENBIDE
KONTUAK

Lege eta
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080

Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA



Quetzal
[arropa, bitxiak, opanak...]

Zubiaturre, 2 · 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com



CAPRI

PIZZERIA

943 03 33 15

GHERO ANTZEZLANA ESKAINIKO DA ERMUAN MAIATZAREN 3AN

Tartean antzerki taldeak maiatzaren 3an aurkeztuko du *Ghero*. Azken euskalduna Ermua Antzokian (22:15ean). Euskaltzaindiarekin batera ekoiztutako antzezlan honek 3000. urtera garamatza, eta azken euskaldunaren istorioa kontatzen du. Euskara da *Ghero*ko protagonista nagusia. Izan ere, dozena bat hizkuntza desberdin erabiltzen dira ikus-kizunean. Patxo Telleriak idatzi du dramaturgia eta Jokin Oregik zuzendu du; eta, oholtza gainean bost aktore: Ane Pikaza, Olatz Ganboa, Iñaki Maruri, Mikel Martinez eta Patxo Telleria. *Drogetenituri* aldizkariak sarrera bikoitza zozketatuko du apirilaren 30a baino lehen mezu elektronikoa bidaltzen duten guztien artean (drogeten@gmail.com).



Euskal Birusaren batzar orokorra maiatzaren 20an izango da

Maiatzaren 20an, astelehena, Euskal Birusa Euskara Elkarteko urteko batzar orokorra burutuko da. 18:00etan izango da lehen deialdia, eta 18:30ean bigarrena. Gai ordena hauxe izango da: 2018ko balantzea, eta 2019ko aurrekontua eta plangintza. Parte hartu nahi duten bazkideek elkarteko egoitzara jo beharko dute, Elexosten (Erdikokale zeharbidea 2, 1. Pisuan). Aldez aurretik konfirmatzea eskertuko da: 688632874 / euskalbirusa@gmail.com



“Irakurri, Gozatu eta Oparitu” ekimenari probetxua ateratzeko gomendioak

Udal Liburutegiko apirileko nobedadeen zerrendatik aukeratutako liburuak.

Mendiaren altzoan. Oihana Azkorbebeitia (Oihana Azkorbebeitia, 2018).

“Kirok arloan, mendia bera da motibazioa niretzat. Mendiak bizia, askatasuna, eta zoriona ematen dizkit. Eta bakea. Bake itzela”.

Urpeko bidaia handia. Lucía Brunelliere (Ttartalo, 2018). Umeentzako fikzioa.

Dzanga itsaspara Sonarusekin abentura sinesgaitza bizitzeko! Liburuarekin batera, soinu-banda batek istorioaren irudien eta ozeanoaren bihotzera eramango du irakurlea. Olatuak, izurdeak, arrainak, balea, ekaitza... Denak nahasian bizia hartuz itsas melodia liluragarriena osatzeraino.

Martxoan eta apirila bitartean “Irakurri, Gozatu eta Oparitu” ekimenean parte hartu duten guztien artean, 30€ko erosketa-txekea zozketatuko da maiatzaren 2an.

Bi formakuntza saio burutuko dira Emakumeen Topalekuan maiatzean

Hilaren 10ean *Made in L.A.* filma ikusteko aukera egongo da, eta honen ostean Silvia Carrizo dinamizatzaileak gidatutako zine-foruma egingo da (19.00etan). Hurrengo egunean, maiatzaren 11n, Carrizok berak eskainiko du “Mujeres en un mundo en movimiento: mujeres migrando” formakuntza (10:00etatik 15:00etara). Saio hauek Lagun Artean elkarteak antolatzen ditu, eta Emakumeen Topalekuaren laguntzarekin burutzen dira.

SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

AMAIA HARATEGIA

Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

IKASTOLA
1968tik Ermua
euskalduntzen

2019-2020
IKASTURTEA

BATXILERGOA



AURREMATRIKULA



D EREDUA



Datak:
Maiatzaren
2tik 14ra
(biak barne)



ZIENTZIAK



GIZARTE ZIENTZIAK



Errebalburu 8
48260 - Ermua
Tel. 943254525



015779aa@hezkuntza.net / www.ermuabhi.hezkuntza.net

*Eraginkortasunez
jarduteko
trebatzen*



MALLABIKO LEKUKOAK:

Mendibil, Pelota eskola, Jasokunde abesbatza, Jubilatuek, Rober eta Lorea, Eskola, Guraso elkartea, Askalde, Udala, Nahikari emakume taldea, Lagun artean abesbatza txiki, Futbito, Satxibu aisialdi taldea, Berbalagun, Biharko izarrak, Txondor herri kirolak, Goimek, Gazte Alai dantza taldie, Geu Be

hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburu eta jaiegunetan,
10:00etatik.

Komentukua z/g - 943030527

esanline[®]

+ @ + TV +

846 080 010
Cardenal Orbe Plazan, 06 - Ermua
esanline.es

Bitxi-denda Tailor propioa Edojurdenda

Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel: 94 659 01 41 - 618 89 29 60
E-maila: enolimp@hotmail.com
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak

www.enolimp.es

Horacio Decoración

VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80
www.dghoraciodecoracion.com

TAPIZERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK

“Ingeniaritza Biomedikoaren bidez, jendearen bizi-kalitatea hobetzen dugu”

Maitane Araujo González ermuarra da, 19 urte ditu eta Ingeniaritza Biomedikoa gradua ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean.

- *Zergatik aukeratu zenuen Ingeniaritza Biomedikoa gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?*

Ingeniaritza oso interesgarria iruditzen zitzaidan; bestalde, medikuntza ere betidanik gustatu zait. Orain arte, bi mundu ezberdinak izan dira, ez dira inoiz elkartu; hala ere, biak konbinatuz hainbat aurrerapen lor daitezke. Gaur egun lortzen ari diren emaitzak ikaragarriak dira eta etorkizuneko hobekuntzetan parte hartzea gustatuko litzaidake. Gehien motibatzen nauena da jendearen bizi-kalitatea hobetzea. Bestalde, Mondragon Unibertsitatea aukeratu nuen bere hezkuntza eredu gustatzen zitzaidalako. Nire ahizpak ere hemen ikasi du. Bere proiektuak ikusi ditut eta oso interes-

garria iruditu zitzaidan nola egiten duten lan ikasleek. Gainera, gure inguruan Mondragon Unibertsitatea da Ingeniaritza Biomedikoa gradua eskaintzen duen unibertsitate bakarra.

- *Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia?*

Lehenengo maila gogorra izan zen, baina ikasten ari naizena asko gustatzen zait eta pixkanaka-pixkanaka dena ongi ateratzen ari da. Uste dut gradu egokia aukeratu dudala; beraz, oso pozik nago.

- *Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?*

Talde lana asko lantzen da eta jende ezberdinarekin lan egiten irakasten digute. Metodologia honek lan mundurako prestatzen gaitu.



- *Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?*

Unibertsitatetik gehien gustatzen zaidana proiektuak dira, bertan ikus dezakegu ikasten ari garena gustatzen zaigun edo ez. Gainera, proiektuei esker, ikasi duguna aplikatu dezakegu. Bestalde, hiru hizkuntzatan ikastea ere gustatzen zait, azkenean

lan munduan hizkuntza desberdinak erabiliko ditugunez, ikasteko bide onena unibertsitatetik hastea da.

- *Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?*

Ikasten jarraitzea gustatuko litzaidake, gustatzen zaidan alorrean lan egiteko eta nire inguruan dauden pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko.

“Mondragon Unibertsitateko metodologiak lan mundurako prestatzen gaitu”



ERMUKO LEKUKOAK:

Gazteak, Nor Antiespezistak, Antxitxiketan, Artarrai, Errotabarri, Monroe Innovación, Irulitxa, Alboka Musika Eskola, EH Bildu, Elkarte Gastronomikoak, Eskoletako langileak, Anaitasunako IGE, Merkatari Elkarte, Herri Muga, Tokiottarrak, Monroe Automotive, Euskal Birusa-Euskaltzaleen sarea, Txindurri, EAJ, Infreñu taberna, Berbalagun, Emakumeen Asanblada-Zipriztintzen, Agurtzaneri elkartasuna, Aurten Bai errealzaleak, Bertso-eskola.



CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefona 943 17 04 14

Ferreteria
ANBOTO
Burdindegi

Orain
KOTXEKO GILTZEN
KOPIAK ere
egiten ditugu



943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es



Gurasoak ipuin-kontalari bihurtu ziren

Hezkuntza aberatsago bat bultzatu nahian, familiak eskolako ekintzetan parte hartzera animatzen ditugu. Oraingo honetan, irakurzaletasunarekin loturik, gurasoak gonbidatu ditugu beraiek aukeratutako ipuin bat kontatzera.

Ikustekoa da, aitek zein amek nolako ilusioz ipuina irakurri edo kontatzen duten. Ezohizko kontalari hauek gure ikasleen arreta guztia jasotzen dute, erabat lilurata entzuten baitituzte kontatutako istorioak.

Beste behin ere, ekintza honek arrakasta handia izan du, eta hurrengo ikasturtean errepikatzea eskatu digute.



Nagusien egoitzako ekintzetan gustura

Gure eskolako ikasleak urte osoan zehar nagusien egoitzara joaten dira eskolaz kanpoko orduetan, nagusiekin ekintza ezberdinak egitera.

Elkarrekin jolasatu (kartak, bingo...), inauterietako jantziak prestatu, merkadillo solidarioan parte hartu, ordenadorean ibili, wii-an jolastu, istorioak idatzi... Denetarik egiten dute elkarrekin.

Ikasleak oso gustura joaten dira eta zer esanik ez egoitzako nagusiak!

Esperientziak partekatzen eta elkarrengandik ikasten ari dira umeak jarduera honi esker.

Korrika Txikian parte hartu genuen



Ermuko eskolek euskararen aldeko Korrika txikia ospatu genuen apirilaren 12an. Nagusien modura, guk ere Ermuan zehar ibilbidea osatu genuen, eta lekukoa eskola baten eskutik beste esku batera pasatu genuen. Bukieran, plazan, euskararen aldeko mezua irakurri eta dantza eginez eta txokolatea edanez amaitu genuen.

T XALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

Erdikokale 13
(Ermua)

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

ENKARGVAK
943 030 299



Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata
8:30-13:00



943 170474



ileapaindegia

Silvia

peluquería



688819336

RUBEN LOSADA

- Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa?

Oso garai zoriontsua izan zen. Beti kalean, lagunekin, bizikletan...

- Ikasketarik burutu ze-nuen?

Irudi eta Soinea ikasi nuen, baina ahaztuta daukat guztia. Ez dut sekula horretan lanik egin.

- Zertan egiten duzu lan?

Arkupe taberna nire familiara da, eta 16 urterekin hasi nintzen bertan lanean. Gainera, Euskotreneko autobus-gidaria naiz.

- Zein ibilbide egin ohi duzu?

Normalean, Mallabitik Ondarrura. Noizean behin, Ermutik Donostiara.

- Taberna edo autobusa, zein nahiago duzu?

Taberna, pilo bat gustatzen zait. Ohituta nago, bizitza guztia daramat horretan. Herriko beste taberna batzuetan ere zerbitzaria izan naiz: Kalotx, Yomy, Déjate Querer... Baina Euskotreneko lan-baldintzak oso onak dira.

- Zer da tabernari lanetik gehien eta gutxien gustatzen zaizuna?

Jendearekin harremana asko gustatzen zait. Gutxi, ordutegia. Goizean goiz hasten gara lanean.

- Aisialdian zer egiten duzu?

Lehen bizikletan ibiltzen nintzen, eta motorzale amorratua naiz, baina ez daukat denborarik. Hiru motor ditut: mendikoa, errepedekoa



Durangon jaio zen, duela 44 urte, baina Ermuan bizi izan da beti. Arreba bat dauka, bera baino 12 urte zaharragoa. 13 urteko alaba du, Malen. Bere gurasoak Arkupe tabernako jabeak dira, eta ia 30 urte daramatza berak bertan lan egiten. Zerbitzari lana, Euskotreneko autobus-gidari lanarekin bateratzen du egun.

eta Vespa zahar bat. Saltzea gustatzen zait, konpondu...

- Kirolen bat jarraitzen duzu?

Txirrindularitza, telebista eta zuzenean.

- Telebista, irratia, liburuak, antzerkia...

Antzerkia asko gustatzen zait, eta Ermuan luxuzko eskaintza daukagu.

- Musikazalea zara?

Bai, rock-and-rolla gustatzen zait.

- Nora egingo zenuke bi-daia?

Europa ezagutuko nuke lehenik; Asia ondoren.

- Bertuterik baduzu?

Besteek esan beharko.

- Eta akatsik?

Bai, asko. Esaterako, oso burugorra naiz, onerako zein txarrerako.

- Ondo moldatzen zara teknologia berrieekin?

Bai, oso ondo. Gainera, gustukoak ditut.

- Puntuala zara?

Bai, oso.

- Erraz haserretzen zara?

Askokostatzen zait benetan haserretzea, baina

behin haserretuta kostatu egiten zait ahaztea.

- Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Indarkeriak, tratatu txarrek, bortxaketek... Biolentziak orokorrean.

- Zerk eragiten dizu barrea?

Edozerk. Umore oneko pertsona naiz.

- Zure bizitzako egunik zoriontsuena?

Nire alaba jaio zenean.

- Zer eskatzen diozu lagun bati?

Leialtasuna.

- Zure eguneko momentua?

Denbora izanez gero, sofan eseri, liburu edo tableta hartu, eta zerbait irakurtzea. Hori da niretzat luxurrik handiena.

- Txikitatik hitz egiten duzu euskaraz?

San Pelayo Ikastetxean ikasi nuen, eta oso euskara gutxi ematen genuen. Baina niri beti gustatu izan zait euskara, eta ikasteko erronka izan dut barnean. Banoa astiro-astiro.

- Euskaltegian zaude?

Bai, bi urte egin ditut AEKn, baina aurten ez daukat joateko denborarik. Ea datorren urtean... Hala ere, praktikatzen saiatzen naiz.

- Berbalagun egitasmoa ezagutzen duzu?

Bai, iaz talde bat sortu genuen, baina aurten ezin izan diogu jarraipenik eman. Hala ere, WhatsAppeko taldeari eutsi diogu, eta noiz behinka hitz egiten dugu.

Dorleta Vidal

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



optika
itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK

✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51

Andoni Isusi, txakur kroseto Espainiako txapeliduna:

“Lasterketetan, txakurrak egiten du lanaren %70”

Martxoaren 9 eta 10ean txakur kroseto Espainiako txapelketa irabazi zuen Andoni Isusi ermuarrak Baqueira Bereten. Berak eta bere gerrira lotuta zihoan Baltok, bere Greysterrak. Deba Beheko Takuai Mushing taldeko kideak dira, eta Belgikan burutuko den Europako Txapelketa dute orain buruan.

- Zenbat denbora daramazu txakur krosetan?

Nire laugarren urtea da. Lehenengo bi urteetan Euskal Herri mailan aritu nintzen, eta Euskadiko txapelidunorde izan nintzen. Azken urte t'erdian Espainiako txapelketan jardun dut. Honen barruan, alde batetik liga edo kopa dago; bestetik lurreko eta elurreko txapelketak. Bietan hartu dut parte aurten. Lurrekoan 7. geratu nintzen, eta elurrekoan garaile izan naiz.

- Proba horietan txakur berarekin aritu zara?

Ez. Lurreko proba egin zenean, Baltok urtebete baino gutxiago zeukan, eta ezin izan nuen eraman. Taldekide baten txakurra eraman nuen.

- Baina beste txakur bat baduzu ere, ezta?

Bai, Tyson pitbulla. Berarekin Euskal Herriko lasterketetan ibiltzen naiz. Kirol honetan edozein arrazatako txakurrarekin lehiatu zaitezke, baina maila gorenean aritzeko lasterketetarako

berariazkoak diren txakurrak eraman behar dituzu, bizkorragoak direlako. Balto lasterketako txakurra da. Greyster arrazakoa da, Eskandinaviako mestizoa: galgo eta brako artekoa. Bere genetikan dago lehiatzea. Santandarreko mutil baten bitartez lortu dut.

- Zenbat kilometro izaten dituzte lasterketek?

Lau eta zazpi bitartean. Sprintak dira, txakurrak dena ematen du lehen momentutik. Eta berak egiten du lanaren %70. Zure forma fisikoa zenbat eta eskasagoa izan, orduan eta lastre handiagoa zara txakurrarentzat.

- Nola entrenatzen duzu berarekin, hemen elur guxi dago...

Ez, elurrik ez! Entrenamenduak bereizten ditugu. Txakurra entrenatzeko, nire bizikletara lotzen dut; nik, aldiz, nire kabuz egiten dut korrika edo bizikletan. Presa gainean dagoen pista batean aritzen gara, Areitio ingurutik. Hemen ez da erraza leku laua topatzea!



Andoni Isusi, bere ezkerrean Balto eta Tyson eskuman.

- Zergatik ez duzu lasterketetan bezala entrenatzen?

Kirol honek sekulako astindua ematen die hankei. Txakurra bizikletan lotuta eramanean, ni ez naiz horrenbeste nekatzen. Nahiz eta arin joan, txakurra frenatzen zoaz beti, eta hankak sufritu egiten dute. Hiruzpalau egunetan minez zabilta.

- Gure artean ez da oso kirol ezaguna, zer dela-eta hasi zinen txakur krosetan?

Hemen ez, baina Europako iparraldean oso ohikoa da. Telebistaren bitartez izan

nuen honen berri, txakur hezitzaile baten saioan. Arnesa lortu nuen, eta Tysonekin hasi nintzen. Hasieran ez zidan kasu handirik egin, eta lehen lasterketan beldurtuta hasi arren, oso emaitza ona lortu genuen. Eta pikatu egin nintzen.

- Zein proiektu dituzue orain?

Urrian Europako txapelketara joango gara, Belgikara. Maila oso altua egongo da bertan, eta gure nahia da disfrutatzea, ikasten jarraitzea, eta ahal bada goiko postuetan geratzea.

Dorleta Vidal

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

Denda berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412



PUB YOMY

**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**

Zer dago desira faltaren atzean?

Sexologoek terapian ikusten dugun ohiko errealtate bat (gehien bat, emakumeen kasuan) desira faltarena izaten da, hau da, askok diote sexua egiteko gogo falta dutela.

Gaur egun, badakigu *sexu* hitza ez dela *sarketaren* sinonimoa. Hau da, masajeak, musuak, besarkadak ere... sexualitatearen atal garrantzitsua dira. Hori argi badugu, galde diezaiogun geure buruari berriz ere, zer ote den desira falta horrekin sentitzen duguna. Litekeena da koittoa egiteko gogorik ez izatea, baina beharbada, beste emakume edo gizon batzuegan desira edo atrakzioa pizteko irrikan egon gaitzke, besarkadak eman eta jasotzeko, musukatzeko... Baina orduan, zergatik kokatzen

ditugu sexualitatearen atal hauek bigarren mailan?

Arrazoa da jendarte heterokoi-tozentrista batean bizi garela. Hitz horrek esan nahi du dena koitooaren inguruan antolatzen dela. Sexualitatearen ikuspegi murriz horrek ondorioak dakartza. Badirudi sexualitatea praktika konkretu batera mugatzen dela: emakume eta gizon baten arteko koitorea, hain zuzen ere. Duela gutxira arte praktika horren helburua ugalketa zen. Gaur egun, aldiz, plazeraz jarduten dugu, baina praktika bera da oztopoa: plazera lortu nahi izatea soilik koitooaren bitartez.

Kasu askotan, ez da sarketa plazer gehien ematen duen praktika (pertsonearen arabera, noski) eta horrek, bikote askotan ezinegon sortarazi lezake. Izan ere,



Nahia Rojo

soilik koitooaren bitartez orgasmoa duten emakumeen portzentajea nahiko baxua da.

Beraz, zabal dezagun sexualitatearen ikuspuntua, irudikatu eszenatoki desberdinak, ez jarri mugarik (behintzat, nork bere buruari) eta batez ere gozatu gorputz osoaz! Utz ditzagun aurreiritziak alde batera eta askatasunez hegan egin dezagun!

Halere, *laguntza* behar dugula sentitzen badugu, sexologo bategana jo dezakegu. Sexologoen lana da pertsona bakoitzari bere sexualitatea modu askean eta positiboan bizitzen laguntzea. Sexologian espezializatuta dauden asko psikologoak ere badira, eta edozein prozesutan laguntzeko prest daude.

“Dena koitooaren inguruan antolatzen da, eta sexualitatearen ikuspegi murriz horrek ondorioak dakartza”

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08



IZASKUN TXURRUKA



Goienkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com

Proba-Leku

Heapaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A

Tel. 943 17 05 42

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA



Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454

sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

SALGAI

42 metro karratuko mobil-homea salgai. Bañareseko kanpinean dago (Errioxa, Santo Domingo de la Calzadatik 2,5kmra). Teilatu bikoitza. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna, dutxa eta bidearekin. Aire egokitua. 30 metro karratuko portxea toldoarekin. Prezio negoziagarria. © 943031477 (gauean, 20:00etatik 22:00etara).

LAN BILA

Nagusiak zaintzen (gauez) eta garbiketarak orduka. © 662012834



Apirilaren 19an
Zorionak Diana!!!
Ondo pasa zure urtebetetzean. Muxu handi bat etxekoan partez. Maite zaitugu.



Apirilaren 18an
Zorionak Luken!!
10 urte mutil handi! Patxo eta besarkada pila familia osoaren partez.



Apirilaren 4an
Zorionak Gaia!
3 urte dagoeneko! Ondo-ondo pasatu! Muxu handi-handi bat familia osoaren partez.



Apirilaren 26an
Zorionak zuri,
zorionak zuri, zorionak ama! Besarkada eta muxu handi bat etxeko denon partez!! Asko-asko maite zaitugu!!



Apirilaren 25ean
Zorionak laztana,
zure laugarren urtebetetzean. Egun ederra pasa, aita eta amaren partez. Muxu handi bat, asko maite zaitugu!



Apirilaren 15ean
Zorionak Aritz!!!
Ondo pasa zure urtebetetzean. Muxu handi bat Lucía, Diana eta osaba Oscarren partez.



Maiatzaren 22an
Zorionak Lander.
Bi urtetxo! Ondo pasatu amama eta aiteitiren partez.



Maiatzaren 4an
Zorionak Nora zure lehen urtebetetzean, aitate eta amamaren partez.



Apirilaren 12an
Zorionak politza!
Egun zoragarria izan eta ospatu merezi duzun bezala! Jarraitu horren maitakorra eta alaia izaten! Patxo erraldoi bat Oihanen partez bereziki!

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua: drogeten@gmail.com helbidera.

Azken eguna: **Maiatzaren 20a.**

Enter
INFORMÁTICA
SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA
VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

arral
aral97.com
Telf.: 943 17 60 75
banatzaile ofiziala
- Luis Cañas familia - Pazo Señorans - Txakoli Akarregi
- Añada Real - Vicente Gandía - Milana
- Yllera taldea - Oriol Rossell - La Loca Juana
- Gomez Cruzado - Astobiza txakolina - nitida
arral@aral97.com - Pol. Ind. Gaitondo Goikoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

Hamburguesería
TITANIC

Pintxo dastaketa poteoan
Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOAK
INPRIMAKETAK KAMISETATAN
Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

Zuri egokitzen den odontologia
La odontologia que se adapta a ti
Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI col. nº 1284
• P.A.D.J
• IMO
• SANITAS
• DENTYRED
• AZKARAN
• OCASO
943 17 04 04
info@clinicasanpelayo.com
San Pelayo Zeharkatea 5
48260 Ermua (Bizkaia)

**MALLABIA
1969**

Argazki honek 50 urte inguru ditu, bertan, ospakizun baten agertzen dira: Josefa Gandiaga, Lapatzakoa, bere senarra Ambrosio Aranguena eta Gomesiako Donato Agirre.

**ERMUA
1959**

Auzokideak, lehengusu-lehengusinak, lagunak... Irulitxa auzo ingurukoak ia denak, trenbide gainean zegoen Vista Alegre etxeko harmailetan erretratatu zituzten. Goi-goitik hasita, ezkerretik eskumara: Conchi Olañeta, Nekane Araiztegi, Miren Edurne Elejondo, Marines Agirregomezkorta, M^a Fran Olañeta, Amaia Agirregomezkorta, M^a Teresa Montells, Agurne Yarza, Karmele Agirregomezkorta eta Jose Antonio López.

KARABIXA


KARABIXA KAFETEGIA
Egunero 8:30etik aurrera zabalik

**NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA**

San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

**LONDON
-taberna-**

Hauteskunde Orokorrak apirilaren 28an izango dira. Udal hauteskundeak, berriz, maiatzaren 26an. Bozkatzeko asmoa duzu? Zergatik?



■ Bai: 123 boto.
 □ Ez: 9 boto.

Aprilaren 8tik 15era egon da inkesta honetan parte hartzeko aukera, eta guztira 132 boto jaso dira Euskal Biruseko Facebooken.



Ezin dut.

Pamela Janice



Aldaketa lortzeko esperantzarekin.

Irantzu Barrondo



Badakidalako modu bakarra dela kezkatzen gaituzten gaiak aldatzeko (hobera aldatzeko, espero).

Ana Hanais



Modu honetan demokrazian bizi garela sinestarazten digutelako ... ustelkeria eta gezur hutsa ez den arren

David Salgado Martin

Tasio eta Sabino

- Gaur arratsaldean 4. mitinera noa.
- Oraindik ez dakizu nori emango dizun botoa?
- Bai, baina mitinetan ez da bakoitzaren asmoez hitz egingiten. Gainontzekoen mitinak entzun behar dira horretarako!



URRETA

burdindenda

* Etxea	* Giltzak
* Tresneria	* Sarrailagintza
* Brikolajea	* Kit altzariak
* Ervillak	

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

KRABI

Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA

ZINEA

4tik 6ra
11tik 13ra
18tik 20ra
25etik 27ra
Zehaztu gabeko filmeak.
Ermua Antzokian.
Hainbat ordutegi.

ZINE-KLUBA

Hilak 2
Hilak 9
Hilak 17
Hilak 23
Hilak 30
Zehaztu gabeko filmeak.
Ermua Antzokian.
20:30ean.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 5
Hilak 12
Hilak 19
Hilak 26
Zehaztu gabeko filmeak.
Ermua Antzokian.
17:00etan.

MUSIKA

Hilak 11
Udaberriko abebatzen kontzertua: Pispillu, Larmiñe eta Garaizarko Matorriak abesbatzak.
19:45ean.
Santiago elizan.

Hilak 18
Vértigo Rock: Gatillazo, Kaos urbano, Leihotikan, The Capaces, Brutus, Daughters, Perluta, Worth it, Tres 41, The Red Army eta Salda dago.
16:00etatik aurrera.
Betiondon.



ANTZERKIA

Hilak 3
"Ghero. Azken euskalduna", Tartearen taldearen eskutik.
22:15ean.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 10€

Ghero. Azken euskalduna antzezlanari ikusi nahi? drogeten@gmail.com helbidera mezua bidali apirilaren 30a baino lehen, eta sarrera bikoitzaren zozketan parte hartuko duzu.

Hilak 10
"Las princesas del Pacífico", La estampida taldearen eskutik.
22:15ean.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 10€

ERAKUSKETAK

Hilaren 2tik 16ra
Zeramika erakusketa:
Jesús Belaustegi,
M^o Jesús Madinabeitia eta Carmen Mostazaren lanak.
Lobiano Kultur Gunean.
18:00etatik
20:00etara.

Hilaren 20tik 2ra:
Anaitasuna Ikastolako 50. urteurrena.
Goizez eta arratsaldez.
Lobiano Kultur Gunean.

BESTELAKOAK

Hilaren 6tik 12ra
Galizako letreei buruzko jardunaldiak:
hainbat ekitaldi.
Orbe kardinalaren plazan eta Galiziako zentroan.

Hilaren 16tik 19ra
Euskal Liburu eta Disko azoka: hainbat ekitaldi.
Orbe kardinalaren plazan.

Hilaren 24 eta 25ean
Anaitasuna Ikastolako 50. urteurrena:
hainbat ekitaldi. Orbe kardinalaren plazan.

Hilaren 27tik 2ra
Gaztela-Mantxako kultur astea. Hainbat ekitaldi.
Gaztela-Mantxako zentroan eta Martxoaren 8ko plazan.

Patxi López

TXINDURRI
TALDEA
Tokian tokiko

PRO
arraindegia

ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

Infreñu
Taberna

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

ALBOKA

MUSIKA
ESKOLA

- Akordeoia
- Klarinetea
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

eibarko la salle azitain

artezkoa

giza eta gizarte zientzietakoa

zientzietakoa



aurrematrikula zabalik maizatzen 2tik 14ra

La
Salle
Eibar

www.lasalleibar.com

[emaila: azitain@lasalle.es](mailto:azitain@lasalle.es)

Tel: 943 121 698

Udako euskara ikastaroak
eta barnetegiak 2019



udan, arinago

aek euskara
praktikoa



EUSKALTEGIAK

IKASTARO TRINKOAK
Azterketak prestatzeko
ONLINE-IKASTAROAK ERE BAI!



2 ASTEKO BARNETEGIAK

EUSKARA-ESKOLAK
EUSKARAZ BIZITZEKO
AZTERKETAK PRESTATZEKO



FAMILIA-BARNETEGIAK

EUSKARA IKASTEKO
SEME-ALABEKIN EUSKARAZ ARITZEKO



BARNETEGI IBILTARIAK

OINEZ
MINTZAPRAKTIKA EGITEKO

udabarnetegiak@aek.eus

673 200 100 · 946 464 000

www.aek.eus



KALTXANGO AEK EUSKALTEGIA

2019ko EKAINA/UZTAILA/IRAILA

EKAINA · DBH 4 ETA BATXILERREKO IKASLEENTZAT

B2/C1

Ekainaren 17tik uztailaren 12ra
Izena emateko azken eguna, maiatzaren 31

UZTAILA · B1/B2/C1

Ekainaren 26tik uztailaren 23ra
Izena emateko azken eguna, ekainaren 21a

IRAILA · B1/B2/C1

Irailaren 2tik 27ra
Izena emateko azken eguna, uztailaren 23a

**Diruz lagunduak
EUSKALTEGI HOMOLOGATUA**

Zearkale 16, behea Ermua · 943 17 19 40 · kaltxango@aek.eus